# ERREFUXIATUAK ESKORIATZAN HARTZEKO ETA BERAIEI LAGUNTZEKO ONDORENGO ERAKUNDE ADIERAZPENA ONARTU DADIN EAJ-PNVK eta IRABAZI-ESKORIATZAK OSOKO BILKURARAKO AURKEZTUTAKO MOZIOEN MOZIO ALTERNATIBOA

*Azken urteotan errealitate geldiezina da Europarako migrazioa ezberdintasun sozialengatik, krisi humanitario eta ekonomikoarengatik eta gero eta gerra gehiago daudelako Afrikan, Europako ekialdean eta Ekialde Hurbilean.*

*Aurten, 2015ean, 350.00 errefuxiatu baino gehiago izan dira bere herrialdeetako pobreziatik eta gerratik ihes egin dutenak. Horietako askok Mediterraneoa zeharkatu dute Europara iristeko. ACNURrek emandako datu ofizialen arabera, zeharkaldi horretan hildakoak 2.500etik gora izan dira. Barne borrokek eta okupazio militarrek exodoak eragin dituzte Sirian, Iraken edo Afganistanen. Sirian bakarrik, bost urteko gatazka armatu larriaren ondorioz, errefuxiatuen kopurua 4 milioitik gorakoa da dagoeneko.*

*Bigarren Gerra Mundialetik izan duen krisi humanitario handiena jasaten ari da Europa. Beraien herrialdeetatik ihesi datozen milaka pertsonei heriotza eragiten dien drama bat da. Hala ere, mundua lekuko isila da, eta mendebaldeko agintarien ezintasuna eta arduragabekeria gero eta nabariagoa da.*

*Errealitate horretarako irtenbidea konplexua dela jakinik ere, onartezina da Europar Batasuneko agintari politikoen eta beraien gobernuen isiltasuna, planifikazio falta eta deskoordinazio handia. Gatazkek eta giza eskubideen urraketak sortutako migrazio horri ezin zaio erantzun alanbrezko hesiekin eta militarren jazarpenarekin, eta ezta bizirik irauteko iheska datozen pertsonei kuota komertzialak ezarrita ere.*

*Herritar gehienek justizia eskatu dute eta elkartasun aktiboa erakutsi dute antzeko egoeretan, esate baterako, Balkanetako gerran, eta gaur egun ere erakusten jarraitzen du sahararrekin. Elkartasun hori izan da eta da euskal gizartearen ezaugarri.*

*Gizarte bezala toki mailan ere lan egin beharra dugu arazo larri honi konponbideak emateko. Udal askok erakutsi dute dagoeneko Europara iritsi nahian diren errefuxiatuak hartzeko hiri aterpe sare baten parte hartzeko borondatea.*

*Horregatik guztiarengatik, Eskoriatzako Udalak ondorengo ERAKUNDE ADIERAZPENA egiten du:*

*1.- Eskoriatzako Udalak bere prestasuna agertzen du gatazka politiko eta militarretatik -Sirian eta inguru horretako beste herri batzuetan gertatzen den bezala- ihesean datozen errefuxiatuak hartzeko Horretarako, ondorengo neurriak hartuko ditu:*

- Eusko Jaurlaritzak koordinatutako lan taldearekin batera arituko den lan talde bat sortuko du *udal baliabideen esleipena koordinatzeko eta errefuxiatuei laguntzeko proposamen komun bat egiteko.*
- *Jendea hartzeko egon daitezkeen lekuen -ahal izanez gero udal jabetzakoak- zerrenda egingo du eta gizarte zibiletik, ekimen partikularren eta GKEn bidez, errefuxiatuak hartzeko eta horiei laguntzeko sor daitezkeen ekintzak koordinatuko ditu.*
- *Udalak egin beharreko ekintzendako eta errefuxiatuei harrera egiten dabiltzan erakundeei laguntzeko diru partida bat gaituko du.*

ESKORIATZAKO UDALA
2015 IRA 22
| SARRERA | IRTEERA |
|---|---|
| 1750 | — |

## A LA ATENCIÓN DE LOS GRUPOS POLÍTICOS MUNICIPALES

### MOCIÓN ALTERNATIVA A LAS PRESENTADAS PARA EL PRÓXIMO PLENO POR EAJ-PNV E IRABAZI-ESKORIATZA EN RELACIÓN A LA AYUDA Y ACOGIDA DE PERSONAS REFUGIADAS EN ESKORIATZA PARA QUE SE APRUEBE LA SIGUIENTE DECLARACIÓN INSTITUCIONAL

Durante estos últimos años el flujo migratorio hacia países de Europa es una realidad imparable a causa de las diferencias sociales, crisis humanitarias y económicas, y por las cada vez más numerosas guerras de África, Este de Europa y Oriente próximo.

En el presente año 2015 más de 350.000 personas refugiadas han huido de la pobreza y la guerra en sus países de origen. Muchos de ellos han cruzado el Mediterráneo para alcanzar Europa. De acuerdo a los datos oficiales publicados por ACNUR, durante esa travesía más de 2.500 personas han muerto. Las guerras internas y las ocupaciones militares han provocado éxodos en Siria, Irak o Afganistán. Solo en Siria, tras cinco años de grave conflicto armado, el número de personas refugiadas supera ya los 4 millones.

Nos encontramos ante la mayor crisis humanitaria que padece Europa desde la II Guerra Mundial. Es un drama humano, que causa la muerte a miles de personas que vienen huyendo de sus países. Sin embargo, el mundo es un testigo silencioso, y la impotencia y dejadez de las autoridades occidentales es cada vez más patente.

Sabiendo que la solución de esta realidad es compleja, es inadmisible el lamentable silencio, la falta de planificación y la gran descoordinación de las autoridades políticas de la Unión Europea y de sus gobiernos. A este flujo migratorio ocasionado por los conflictos y la violación de los derechos humanos no se puede responder con vallas de alambre y con acciones militares, ni tampoco estableciendo cuotas comerciales a las personas que vienen huyendo para salvar sus vidas.

La mayoría de la población ha exigido justicia y ha demostrado una solidaridad activa en situaciones similares; como por ejemplo en relación a la guerra de los Balcanes y lo sigue demostrando hoy en día con el pueblo saharaui. Esta solidaridad ha caracterizado y sigue caracterizando a la sociedad vasca.

Como sociedad tenemos el deber de trabajar también a nivel local para dar soluciones a este grave problema. Muchos Ayuntamientos han manifestado ya su voluntad de participar en una red de ciudades-refugio que acojan a las personas refugiadas que intentan llegar a Europa.

Por todo ello el Ayuntamiento de Eskoriatza presenta la siguiente **DECLARACIÓN INSTITUCIONAL**:

1.- La Corporación de Eskoriatza declara su disponibilidad para acoger a las personas refugiadas que huyen de los conflictos políticos y militares, tal y como sucede en Siria y en los países de la zona. Para ello adoptará las siguientes medidas:

- Creará un grupo de trabajo que trabajará conjuntamente con el grupo de trabajo coordinado por el Gobierno Vasco, para la coordinación en la asignación de recurso municipales y la realización, en común, de un planteamiento de ayuda a los refugiados.

- Preparará una relación de posibles lugares de acogida, preferentemente de propiedad municipal, y coordinará las acciones de acogida y ayuda que partan desde la sociedad civil a través de iniciativas particulares y ONGs.

- Habilitará una partida económica para las actuaciones municipales a adoptar, así como para colaborar con las organizaciones que trabajan en la acogida a personas refugiadas.

*2.- Kontuan izanik Europar Batasunak erantzukizuna duela krisi humanitario honetan, Europar Batasuneko agintari eta gobernuei, bereziki Espainiako Gobernuari, eskatu behar zaie aktiboki, elkartasunez eta justizia humanitarioaz erantzuteko krisi humanitario honi. Eskatu beha zaie ere behar beste baliabide zuzentzeko gerra horietatik ihesi doazen eta tragedia honetako biktima diren pertsona horiek hartzeko, eta, CEARrek (errefuxiatuei laguntza emateko Espainiako batzordea) egindako proposamenari jarraiki, martxan jar dezatela immigrazio eta babes arloan eskumenak izango duen politika bateratua eta Europako agintaritza bat larrialdi egoerei erantzun azkarra eman ahal izateko eta errefuxiatuen jatorrizko herrialdeetan laguntzeko.*

*4.- Eskoriatzako udalbatzarrak Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen die tragedia honen aurrean jokaera aktibo eta solidarioa izatea, eta tragedia horren ondorioak arintzeko erabilgarri dituzten baliabideak erabiltzeko. Hala ere, erakunde bakoitza ezin da bere aldetik aritu, erakundeak elkarlanean jardun behar dute sortzen diren beharrei erantzun egokia emateko.*

*5.- Eskoriatzako Udalbatzarrak konpromisoa hartzen du lehen aipatutako erakundeekin, hirugarren sektorearekin eta Euskal Herriko beste udal batzuekin lan egiteko errefuxiatuak hartzeko sare bat osatzeko.*

Eskoriatzan, 2015-ko irailak 21

Izd.: Rafael Bernal Gato

IRABAZI ESKORIATZA (Ezker Anitza-IU, Equo, Independientes) udal-talde politikoaren bozeramalea

2.- Teniendo en cuenta que la Unión Europea tiene responsabilidades en esta crisis humanitaria, hay que exigir a las autoridades y gobiernos de los estados miembros de la Unión Europa, especialmente al Gobierno Español, que responda a esta crisis humanitaria de modo activo y con solidaridad y justicia humanitaria. También hay que exigirles que dirijan los recursos necesarios para acoger a estas personas que huyen de estas guerras y que son víctimas de esta tragedia y, de acuerdo con la propuesta de CEAR (Comisión Española de Ayuda al Refugiado), que pongan en marcha una política común y una autoridad europea con competencias en materia de inmigración y refugio para ofrecer una respuesta rápida a las situaciones de emergencia y colaborar en los países de origen.

4.- El Pleno del Ayuntamiento de Eskoriatza solicita a la diputación Foral de Gipuzkoa y al Gobierno Vasco una actuación activa y solidaria ante esta tragedia, y que deriven los recursos disponibles a paliar sus efectos. No obstante, cada institución no puede actuar por su cuenta, sino que las diferentes instituciones deben actuar en colaboración para dar una respuesta adecuada a las necesidades que se generen.

5.- El Pleno del Ayuntamiento de Eskoriatza se compromete a trabajar con las antes mencionadas instituciones, el tercer sector y con otros Ayuntamientos del territorios vascos, para configurar una red local que acoja a las personas refugiadas.

En Eskoriatza, a 21 de septiembre de 2015

Fdo.: Rafael Bernal Gato

Concejal Portavoz del Grupo Municipal IRABAZI ESKORIATZA (Ezker Anitza-IU, Equo, Independientes)